

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

Literatura babestea ez dago modan

Literatura modan ez dagoela pentsatzeko zantzuak ugari dira, eta era askotakoak. Horietako bat, erakundeek literaturaren promozioan gastaturiko dirua litzateke.

Jakina da instituzio eta diru-etxeetako jaun-andere kudeatzaileak inoiz ez direla, oro har, izugarri poesiazaleak izan, baina esan liteke garai batean dotore eta jantzia ematen zuela letra kontu horretan inbertitzeak. Gaur egun, berriz, askoz ere cool eta modernoagoak dira beste arlo batzuk. Zer egingo diogu bada.

Diodanaren adibide bat, zaharren oroigarri eta gazteen irakasgarri. Gure probintzia bakoitzean bina aurrezki kutxa zeuden garaian, Gipuzkoako biek eta Bizkaiko biek literatur sari bana zeukaten 1980ko hamarkadan, hobetoxeago edo okerxeago antolatua baina beren funtzioa betetzen zutenak eta beren xoxak ematen. Arabakoez ez dut akordurik, baina Nafarroan Xalbador Saria laguntzen zuen haietako batek. Nafarroako hura pikutara joan zen aspaldi; aurrezki-kutxen apurkako fusioarekin, Bizkaian sariketa bat geratu zen (Euskaltzaindiaren babesarekin antolatua) eta Gipuzkoan beste bat. Azkenaldian, berriz, Gipuzkoako sariketan erabaki dute (gauzak hobeto egitearren, nonbait) genero bakoitzean urtero antolatua



DANI BLANCO

beharrean bi urtez behin egitea; Bizkaian, ostera, bertan behera utzi dituzte sariok, ez betiko baina bai zehaztu gabeko aldi baterako, zerbait hobea pentsatu bitartean edo.

Murrizketon aurrean idazleak ez gara askorik asaldatu. Batzuk, aspalditik ohiturik daudelako gizartearen axolagabeziara. Bestetzuk, sariketen inflazioarekin eta haien filosofiarekin nazkaturik zeudelako, lehendik ere. Ez ikusiarena egia da, baina egia da halaber prestigio sozialaren galera moduko bat bizi dugula (eta, horrekin konbinatuta, idazle bakar batekiko debozioa bihurtzea beste guztiekiko indiferentziaren ispilu eta ordain). Sarien filosofiaz, berriz, argi dago artea ez dela kirola, berez arrotzak zaizkiola norgehiagokak, baina posible da sorkuntza kulturalak beharrezkoa duen laguntza publikoa beste modu batzuetan planteatzea: esate baterako, idazleei beren lanean lagunduko dieten beken bitartez.

beken bitartez.

Modak moda, sariak sari eta euskarriak euskarri, hitzen bitartez istorioak kontatzeko, ideiak garatzeko, edertasuna bilatzeko zer honek oraindik ere luzaroan jarraituko baitu nire ustetan, literatura deituriko mania bitxi honek bere sortzaileak eta hartzaileak dituen bitartean. On egin denoi. ■

«
Murrizketon aurrean idazleak ez
gara askorik asaldatu. Batzuk,
aspalditik ohiturik daudelako
gizartearen axolagabeziara
»

TXANDAN

Joxerra Garzia



Zirkoa ere *-far-westeko* filmak bezala— erdaraz bizi izan genuen “munduko ikusgarririk handiena” bizi-bizirik zen garaian. Niri, Hegoaldeko erdal zirko haietatik, aurkezleek behin eta berriz errepikatzen zuten leloa geratu zait gogotan: “*!Lo nunca visto!*”. Amari zor diot euskal ordain jator hauxe: “Sekula eztakoa!”.

PSEk aginte-aulkian eta PPK aulkiari eusten urtea bete/bota duten honetan, berritu zait aspaldion atzenduxea neukan lelo hori. Beharko berritu, esan eta esan ari baitira, sekula eztakoak direla

Sekula eztakoa

gure herri hau behin betirako normaltzeko eurei esker lortutakoak.

Propagandaren ikuspegitik axola duen ETBko kate bakarrari begira jarri naiz, eta bai, normaldu latza eman diote. Bereziki albistegi, orain beste kate gehienek diotena baitio ETB2k. Horrek ikusle dezente kendu dio, baina normaltasunak merezi du hori eta gehiago ere. Bestalde, garbi dago zein den orain ETBn izar izateko baldintza: Madrilen nor izana izatea inoiz, zirkoa indarrean zegoen garaian badarik ere. Martxa honetan, aurreko agintarian nostalgia sentiaraziko didate. Hori bai izango dela sekula eztakoa! ■